



ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

ARESOKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA

Areson, 2017ko apirilaren 6an, arratsaldeko 19:00etan eta Aresoko udal aretoan, ez ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivitek Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

Organua : Batzarra
Deialdia: lehenengoa
Eguna: 2017/04/06
Ordua: 19:00
Lekua: Udalaren Batzar Aretoa

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

M^a Asunción Arratibel Onsalo
Jon Gurrutxaga Etxeberria
Xabier Domingo Zubillaga Uranga
Eden Alguero Chivite
Ur Alguero Chivite
Javi Belaunzaran Mariezcurrena
Mikel Baraibar Garmendia

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Ione Miren Lazkoz Maiza

GAI ORDENA:

- 1.- Aurreko aktaren onespina (2017/03/17).
- 2.- Aresoko Eskol Etxeko inguratzaille termikoaren hobekuntza memoriaren onespina.
- 3.- 1/2017ko aurrekontu aldaketaren hasierako onespina: Eskol-Etxeko inguratzaille termikoaren hobekuntza inbertsiorako aparteko kreditua.
- 4.- Eskaera eta galderak.
- 5.- Denetarik

Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak bilera hasi eta beratu publikoa izendatua, arratsaldeko 19:00 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako en quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasotako puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

1.-Aurreko batzarreko aktaren onespina.

Aurreko batzarreko aktaren laburpena egiten du alkateak eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1.- 2017ko martxoaren 17ko ohiko batzarreko akta onartzea.

2.- Aresoko Eskol Etxeko ingurutzaille termikoaren hobekuntza memoriaren onespina.

130/2017 Ebazpenean oinarrituta, otsailaren 16koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntza-DBHko ikastetxeak hobetu eta birmoldatzeko obra proiektuak gauza ditzaten, Aresoko udalak Arista Arquitectos S.L enpresari Eskol-Etxeko eraikinaren ingurutzaille termikoaren egoera hobetuko duen txosten baloratua egitea eskatu dio.

Egin nahi den lana, egun, eskola den eraikineko zatian egurrezko leihoak kendu eta beira bikoitza eta zubi termikoa duten aluminiozko leihoak jartzea izanen da.

Inbertsioaren aurrekontu osoa 42.278,00 euro BEZa barne da.

Behin txosten baloratuta aztertuta, bozketara pasatzen da eta aho batez, Aresoko Udal Batzak ERABAKI DU:

2.1.- Aresoko Eskol-Etxeko ingurutzaille termikoa hobetzeko txosten baloratua onartzea.

2.2.- Txosten baloratu hau aurkeztea honako diru laguntza deialdira: 130/2017 Ebazpenean, otsailaren 16koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak eta Lehen Hezkuntza-DBHko ikastetxeak hobetu eta birmoldatzeko obra proiektuak gauza ditzaten.

3.- 1/2017ko aurrekontu aldaketaren hasierako onespina: Eskol-Etxeko ingurutzaille termikoaren hobekuntza inbertsiorako aparteko kreditua.



ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa) Kontutan izanik Eskol-Etxean egin nahi den inbertsioa, inguratzaile termikoa hobetu nahian, eskola den tokiko egurrezko lehioak kendu eta beira bikoitza eta zubi termikoa duten aluminiozko lehioak jarri.

Ikusirik 2017. urteko aurrekontuan ez dagoela inbertsio hau egiteko partidarik, beharrezkoa izanen da ondorengo aurrekontu aldaketa onartzea aurrekontuan beharrezkoa den partida barneratzeko eta inbertsioa egin ahal izateko:

I Eranskina / Anexo I

Aparteko kredituak / Créditos extraordinarios

Gastua / Gasto:

Part. kodea – código part.	Azalpena – Denominación	Importe – Kopurua
323632001	Inversión envolvente térmico Eskol-Etxea	42.278,00
6.Kapitulua	Inversión en edificios y otras construcciones asociadas al funcionamiento operativo de los servicios.	42.278,00

Financiación / Finantzazioa:

Part. kodea – código part.	Azalpena – Denominación	Importe – Kopurua
7508003	Nafar Gobernuko diru laguntza/ Subvención Gobierno de Navarra.	27.952,00
7.Kapitulua	Kapital transferentziak/Transferencias de capital	27.952,00
8700000	Gastu orokorrak finantzatzeko diruzaintzako gerakinak	14.325,00
8. kapitulua	Diruzaintzako gerakinak / Remanente de tesorería	14.325,00
Denetara		42.278,00

Behin 1/2017 aurrekontu aldaketaren porposamena aztertuta bozketara pastasen da eta aho batez, Aresoko Udal Batzak ERABAKI DU:

3.1.- Ondorengo aurrekontu aldaketa hasiera batean onstea:

I Eranskina / Anexo I

Aparteko kredituak / Créditos extraordinarios

Gastua / Gasto:

Part. kodea – código part.	Azalpena – Denominación	Importe – Kopurua
323632001	Inversión envolvente térmico Eskol-Etxea	42.278,00
6.Kapitulua	Inversión en edificios y otras construcciones asociadas al funcionamiento operativo de los servicios.	42.278,00

Financiación / Finantzazioa:

Part. kodea – código part.	Azalpena – Denominación	Importe – Kopurua
7508003	Nafar Gobernuko diru laguntza/ Subvención Gobierno de Navarra.	27.952,00
7.Kapitulua	Kapital transferentziak/Transferencias de capital	27.952,00
8700000	Gastu orokorrak finantzatzeko diruzaintzako gerakinak	14.325,00
8. kapitulua	Diruzaintzako gerakinak / Remanente de tesorería	14.325,00
Denetara		42.278,00

3.2.-Jendaurrean egonen dira hamabortz egun baliodunean, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina.

3.3.- Jendaurrean egoteko aldia iraganik, aurrekontuaren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada behin betikoz onetsizat hartuko da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko Foru Legearen 202 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

4-Eskaera eta galderak.

5.- Denetarik.

Aztertu beharrekoa aztertuta, 20:00 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

